

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

694/2021 Foru Agindua, abenduaren 20koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren eremuan faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren eta fakturen kontabilitate-erregistroaren zenbait alderdi arautzen dituen abenduaren 1eko 632/2014 Foru Agindua aldatzen duena.

Faktura elektronikoa sustatzeari eta sektore publikoan fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legean xedatutakoaren arabera, 632/2014 Foru Aginduaren bidez Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren eremuan faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren eta fakturen kontabilitate-erregistroaren alderdi jakin batzuk arautu ziren.

Faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorra, abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduan arautua, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Uliazpi eta Kabia foru-erakunde autonomoei dagozkie fakturak mugatzen da, eta, gainera, aukera ematen die Gipuzkoako toki-erakundeei eta haiei lotutako edo haien mendeko erakundeei Gipuzkoako Foru Aldundiaren faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari atxikitzeko.

Bestalde, faktura elektronikoa sustatzeari eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, faktura elektronikoa nahitaez aurkeztetik eta faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrean aurkeztetik kanpo utzi ziren 5.000 euro arteko fakturak.

Abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduaren indarraldian metatutako esperientziari esker, komeni da hura aldatzea, alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrera atxikitzeko aukera emanez foru-sektore publikoko gainerako erakundeei eta, eta, bestetik, nahitaez faktura elektronikoa eta hura sarrera puntu orokorrean aurkezteko betebeharra fakturaren kopuruaren arabera zehazten duen salbuespena aldatuz.

Horiek horrela hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren eremuan faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren eta fakturen kontabilitate-erregistroaren zenbait alderdi arautzen dituen abenduaren 1eko 632/2014 Foru Agindua honela aldatzen da:

Bat. Aldatu egiten da abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduaren 2. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«1. Aurreko 1.2 artikuluan aipatzen diren entitateei ondasunak entregatu edo zerbitzuak egin dizkieten hornitzaile guztiek sortu eta igorri dezakete faktura elektronikoa.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 694/2021, de 20 de diciembre, por la que se modifica la Orden Foral 632/2014, de 1 de diciembre, por la que se regulan determinados aspectos del punto general de entrada de facturas electrónicas y del registro contable de facturas en el ámbito de la Administración foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

De conformidad con lo dispuesto en la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica y creación del registro contable de facturas en el Sector Público, mediante la Orden Foral 632/2014 se regularon determinados aspectos del punto general de entrada de facturas electrónicas y del registro contable de facturas en el ámbito de la Administración foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

El punto general de entrada de facturas electrónicas regulado en la Orden Foral 632/2014, de 1 de diciembre, se limita a las facturas correspondientes a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a los organismos autónomos forales Uliazpi y Kabia y, además, permite que las entidades locales de Gipuzkoa, así como sus entes u organismos vinculados o dependientes puedan adherirse al punto general de entrada de facturas electrónicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Por otra parte, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 de en la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica y creación del registro contable de facturas en el Sector Público, se excluyó de la presentación obligatoria de la factura electrónica y de su presentación en el punto general de entrada de facturas electrónicas, a las facturas por importe de hasta 5.000 euros.

La experiencia acumulada durante la vigencia de la Orden Foral 632/2014, de 1 de diciembre aconseja su modificación al objeto de, por un lado, permitir la adhesión al punto general de entrada de facturas electrónicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa del resto de entidades del sector público foral; y, por otro lado, modificar la exclusión de la obligación de la presentación obligatoria de la factura electrónica y de su presentación en el punto general de entrada de facturas electrónicas en función del importe de las facturas.

Por lo expuesto,

DISPONGO

Artículo único.

La Orden Foral 632/2014, de 1 de diciembre, por la que se regulan determinados aspectos del punto general de entrada de facturas electrónicas y del registro contable de facturas en el ámbito de la Administración foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, queda modificada en los siguientes términos:

Uno. Se modifica el artículo 2 de la Orden Foral 632/2014, de 1 de diciembre, que queda redactado del siguiente modo:

«1. Todos los proveedores que hayan entregado bienes o prestado servicios a las entidades a que se refiere el artículo 1.2 anterior, podrán expedir y remitir factura electrónica.

2. Subjektua dela-eta, hornitzaile horiek derrigorrez faktura elektronikoa erabili eta sarrera-puntu orokorraren bidez aurkeztu beharko dute, honako entitate hauek direnean:

- a) Sozietate anonimoak.
- b) Erantzukizun mugatuko sozietateak.
- c) Espainiar nazionalitatea ez duten pertsona juridikoak eta nortasun juridiko gabeko entitateak.
- d) Zerga araudiak ezarritakoaren arabera, Espainiako lurraldean egoiliar ez diren entitateen sukurtsalak eta establezimendu iraunkorrak.
- e) Aldi baterako enpresa elkarteak.
- f) Interes ekonomiko taldeak, interes ekonomikoko Europako taldeak, pentsio funtsak, arrisku-kapitaleko funtsak, inbertsio funtsak, aktiboak erabiltzeko funtsak, hipoteka-merkatua erregularizatzeko funtsak, hipotekak titulizatzeko funtsak edo inbertsioak bermatzeko funtsak.

3. Zenbatekoa dela eta, ez da aplikatuko aurreko puntuan aurreikusitako betebeharra 1.000 euro arteko fakturen kasuan, hurrengo paragrafoetan xedatutakoari kalterik egin gabe, horietan ez baita aplikatuko salbuespena.

Bigarren apartatuan xedatutako hornitzaileak behartuta egon badira fakturaren bat formatu elektronikoa egitera 1.2 artikuluan aipatutako entitateen bati ondasun entrega bat edo zerbitzu prestazio bat egiteagatik, faktura elektronikoa erabili beharko dute hortik aurrerako ondasun entrega eta zerbitzu prestazio guztietan.

Kontratazio prozedurak 1.2 artikuluan sartuta dauden entitateek bultzatu dituztenean, aurreko apartatuan aipatu diren hornitzaileek faktura elektronikoa egin eta bidaltzeko obligazioa izango dute baldin eta esleipen zenbatekoa 5.000 euro baino handiagoa bada, kasu bakoitzean fakturatzen den zenbatekoa zainahi dela ere.

Era berean, bigarren apartatuan aipatutako hornitzaileek, faktura aurkeztu aurreko urtean, 1.2. artikuluan adierazitako erakunderen bati igorritako faktura guztien balio batura 5.000 euro edo hortik gorakoa bada, aurrerantzean faktura elektronikoak bidali beharko dituzte.»

Bi. Aldatu egiten da abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduaren 4. artikuluan 1. puntua, eta honela geratzen da idatzita:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari atxiki ahal izango zaizkio honako hauek, hornitzaileen faktura elektronikoei dagokienez:

- a) Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeak.
- b) Gipuzkoako toki erakundeak, bai eta beraien sektore publikoa osatzen duten erakundeak.

Atxikitzeko aukera hori gaitzen da faktura elektronikoak sartzeko puntu orokor bat ezartzeko betebeharra betetzeko, faktura elektronikoa sustatzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 6. artikuluan adierazitakoa.

Xedapen gehigarri bakarra. Indarrean jartzea eta ondorioak.

Bat. Foru agindu hau 2022ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean eta egun horretatik aurrera izango ditu ondorioak, hurrengo puntuetan ezarritako berezitasunekin.

Bi. 2. artikuluko hirugarren puntuko lehen paragrafoan ezarritako faktura elektronikoa nahitaez aurkeztu behar izateko salbuespena 5.000 eurotik 1.000 eurora gauzaturiko aldaketa ez zaie aplikatuko 2022ko urtarrilean aurkeztutako fakturei, baldin eta fakturaren data 2021 urtekoa bada.

2. Por razón del sujeto, dichos proveedores estarán obligados al uso de la factura electrónica y a su presentación a través del punto general de entrada, cuando se trate de las entidades siguientes:

- a) Sociedades anónimas.
- b) Sociedades de responsabilidad limitada.
- c) Personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica que carezcan de nacionalidad española.
- d) Establecimientos permanentes y sucursales de entidades no residentes en territorio español en los términos que establece la normativa tributaria.
- e) Uniones temporales de empresas.
- f) Agrupaciones de interés económico, Agrupaciones de interés económico europea, Fondos de Pensiones, Fondos de capital riesgo, Fondos de inversiones, Fondos de utilización de activos, Fondos de regularización del mercado hipotecario, Fondos de titulización hipotecaria o Fondos de garantía de inversiones.

3. Por razón de la cuantía, no se aplicará la obligación prevista en el punto anterior en caso de facturas por importe de hasta 1.000 euros, sin perjuicio de lo dispuesto en los siguientes párrafos en los que la exclusión no será de aplicación.

Los proveedores del apartado 2 que hayan estado obligados a presentar en formato electrónico alguna factura por la entrega de un bien o la prestación de un servicio a alguna de las entidades de las previstas en el artículo 1.2. En adelante, estos proveedores estarán obligados al uso de la factura electrónica en todas las entregas de bienes y prestaciones de servicios.

En los procedimientos de contratación impulsados por las entidades indicadas en el artículo 1.2, los proveedores a que refiere el apartado anterior estarán obligados a expedir y remitir factura electrónica cuando el importe de adjudicación sea superior a 5.000 euros, con independencia del importe que se facture en cada caso.

Asimismo, los proveedores mencionados en el apartado 2 que en el año anterior al que se presenta la factura, enviaron a alguna de las entidades indicadas en el artículo 1.2 facturas por valor total de la suma de todas ellas igual o superior a 5.000 euros, en lo sucesivo estarán obligados a remitir facturas electrónicas.»

Dos. Se modifica el apartado 1 del artículo 4 de la Orden Foral 632/2014, de 1 de diciembre, que queda redactado de la siguiente forma:

1. Podrán adherirse al punto general de entrada de facturas electrónicas de la Diputación Foral Gipuzkoa respecto de las facturas electrónicas de sus proveedores:

- a) Las entidades integrantes del sector público Foral.
- b) Las entidades locales de Gipuzkoa, así como las entidades integrantes de su sector público.

Esta posibilidad de adhesión se habilita en cumplimiento de la obligación de establecer un punto general de entrada de facturas electrónicas señalada en el artículo 6 de la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica.

Disposición final única. Entrada en vigor y efectos.

Uno. La presente Orden Foral entrará en vigor y surtirá efectos desde el día 1 de enero de 2022, con las particularidades establecidas en los puntos siguientes.

Dos. La modificación de 5.000 euros a 1.000 euros de la exclusión de presentación obligatoria de factura electrónica establecida en el primer párrafo del tercer punto del artículo 2 no será de aplicación a las facturas presentadas en enero de 2022 cuya fecha de factura sea del año 2021.

Hiru. 2. artikuluko hirugarren puntuko laugarren paragrafoan ezarritako aurreko urtean igorritako fakturen balio osorako 5.000 euroko mugari dagokionez, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztutako fakturak hartuko dira kontuan.

Donostia, 2021eko abenduaren 20a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (8164)

Tres. Para el límite de 5.000 euros para el valor total de las facturas enviadas en el año anterior establecido en el cuarto párrafo del tercer punto del artículo 2, se tendrán en cuenta las facturas presentadas a partir del 1 de enero de 2022.

San Sebastián, a 20 de diciembre de 2021.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas. (8164)